

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteartea, 2012ko otsailaren 7a. IX. urtea. 2.355. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Ibarrak Euskal Herriko Sokatira Txapelketa irabazi du, 640 kilotan

Abadiño A eta Ibarra berdindurik gelditu dira Durangoko pilotalekuan jokatu den finaleko ligaxkan; irabazlea kitarako lehian erabaki da, lau tiraldiren ostean

Epailearen erabakiek ezinegona sortu dute ikusleen eta Ibarrako tiratzaileen artean; kitarako hirugarren tiraldia bertan behera utzi du faltak direla medio o7



Ibarra taldeko tiratzaileak, txapela buruan dutela, Durangon. HITZA



ITZELBURU

### Fernandezen ontzia lehen postuan doa, hirugarren etapa eta gero

‘Telefonica’ ontziko partaide da ibartarra; bigarren ontzia 15 puntura eta hirugarrena 24 puntura dituzte orain o6

### Aurrera Saiazekoek garaipen erraza lortu dute Berria Txapelketan

Bidegoiango taldeko pilotariak 3-0 irabazi diete Lizarrakoei eta lehiaketaren final laurdenetarako sailkatu dira o6

→ **San Blas jaietan, hotzari aurre eginez.** Tolosako San Blas auzoan jaiak ospatu dituzte asteburuan, eta eguraldi deserosoa izan arren, hainbat ekitaldi egin dituzte giro onean. Horietako bat, Amaroako dantza taldeak eginiko emanaldia izan da; irudian, dantzariak zinta dantzaren une batean. o4

**Konfiantzan, Ikastola**



Anoetako Herri Ikastola  
943 65 29 32  
[www.anoetakoherriikastola.net](http://www.anoetakoherriikastola.net)



Izurako Ikastola  
943 69 43 74  
[www.izurakoikastola.net](http://www.izurakoikastola.net)



Jesusen Bihotza Ikastola  
(Vilabona/Zizurkil)  
943 69 23 21  
[www.jesusenbihotzaikastola.com](http://www.jesusenbihotzaikastola.com)



Laskorain Ikastola  
(Tolosa)  
943 69 71 22  
[www.laskorainikastola.net](http://www.laskorainikastola.net)



Tolosako Inmakulada Ikastetxea  
943 67 36 29  
[www.inmakuladatolosa.com](http://www.inmakuladatolosa.com)



Uzturpe Ikastola  
(Ibarra)  
943 67 12 99  
[www.uzturpe.net](http://www.uzturpe.net)



✉ **Gutuna**

## Tolosako alkate jaunari

Zure karguak merezi duen errespetuarekin, nahiz eta jakin badakidan idatzi hau irakurtzeko tartetxo bat kendu beharko dizudala.

Jakingo duzunez, 33 urte daramatzat udaleko festa batzordean parte hartuz.

Idatzi honen bidez gogora ekarri nahi dut aspalditik (ideia-aren aitzindari bezala) egiten ari naizen eskaria. Hain zuzen ere, proposatu nahi dizut, alkate zaren, udal horrek azter dezala Tolosak inauteriaren museoa izateko aukera. Museo horretan toki bat izango lukete tolosar inauterizaleen ekarpen ugariak, *Jeiki Jeiki*-n ikusi ahal izan den moduan. Hau da: artxiobak, argazkiak, kartela, pegatinak, pelikulak, jantziak, liburuak, partiturak, diptikoak, eta abar...

Esperi hau, tolosar bezala, ez dut uste nirea bakarrik denik. Ziur nago inauterizale bat baino gehiagoren buruan egongo dela, nahiz eta ez duten adierazten (bestetik jakin ere badaikit –nola ez bada herri honetan– ideia horren kontra dauden ere egongo direla).

Tolosan konfiteria museo bat badago, Topic, eta nire galdera da ea zergatik ez duen Tolosak eduki behar museo bat bere festa garrantzitsuenen inguruan, hau da, inauterien gainean. Antzina-antzinatik datozten ospakizunak dira eta Tolosa osoak parte hartzen du bere umorea eta dirua jarriz eta lan eginez. Ahaztu gabe, gainera, inauteriak direla eta kanpotik datorren jendeak Tolosan egiten duen ekarpen ekonomikoa.

Norbaitek esango du *Jeiki Jeiki* muntatu dutela. Baina ez gaitetzen nahastu. Nik eskatzen dudana mostra iraukor bat da eta Cadizek, esate baterako, badauka. Bide batez esan behar dut 2012an Cadiz izango dela inauterien Europako Hiriburua (nire iritziz ezin da inauteri bat beste bat baino hobea denik; denak desberdinak dira eta ezin dira parametroak jarri).

Tolosar honek egiten duen eskaera hau kontuan hartuko duzulakoan eta udalak ere aintzatzotzat hartuko duelakoan, har ezazu nire agurra.

■ **Juan Bautista Aranzabe.**

## Helena Barquillaren bost erritmoen ikastaroan izena eman daiteke

Adunako Asvinenean eskainiko da ikastaroa; edonork eman dezake izena, eta 10:00etatik 18:00etara izango da

Ikastaroa 10:00etan hasiko da, eta 18:00ak arte luzatuko da. Bost erritmoen ikastaroan izena eman nahi dutenek, ez dute zertan dantzaren ezagutza izan beharrik. Edonork parte hartu dezake.

Izena hilaren 8a, asteazkena, baino lehen ematen dutenek 50 euro ordaindu beharko dute, eta ondoren ematen duenak, berriz, 70 euro ordaindu beharko du.

Izena emateko, *asvineneaskola@gmail.com* helbide elektronikora idatzi behar da, edo 692 949 209 (Helena) telefono zenbakira deituz ere eman daiteke.

● [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

**Eneritz Maiz** Aduna

Asvinenea Arte Eszenikoen eskolak, bost erritmoen ikastaroa antolatu du. Hilaren 12an, igandean, eskainiko dute. Irakaslea Helena Barquilla izango da, eta ikastaroan txalapartariak zuzenean ariko dira.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

## → Laburrak

### Aitzol udal euskaltegiak matrikulatzeko garaia da

**TOLOSA** > Aitzol udal euskaltegiak euskara ikasteko matrikula epea ireki du. Gaur hasi eta hilaren 15era bitartean, 09:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 19:00etara izango da aukera. Matrikula euskaltegiaren bertan egin behar da, Gorosabel kalea 34B-3. solairuan. Informazio gehiago nahi duenak: 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietara dei dezake.

### Loatzok Kaldereroetarako entseguak deitu ditu

**GIZARTEA** > Loatzok Musika eskolakoek urtero bezala kaldereroak ospatuko dituzte lrua, Anoeta eta Ibarren. Hilaren 10ean, ostiralean izango da 18:00etatik aurrera. Festa hau ahalik eta ondoen atera dadin entseguak egingo dituzte. Lurran, gaur, asteartea, 18:00etan musika eskolan elkartuko dira. Anoetan, bihar, 18:00etan frontoian, eta Ibarren, 19:00etan Alurrek erabiltzen zuen lokal zaharrean egingo dituzte.

### Zerga eta tasa hobariak eskatzeko epea zabalik

**TOLOSA** > Tolosako Udalak zerga eta tasa hobariak eskatzeko epea zabaldu du. Laguntza hauek eskatzeko asmoa dutenek ezinbestekoa izango dute epea amaitu aurretik eskaerak aurkeztea: ondasun higiezin zerga hobaria familia ugariarentzat, hilaren 29a arte; ibilgailuen zerga salbuespena minusbaliotasunagatik, hilaren 15 arte; eta hondakinen tasa hobaria martxoaren 30a bitartean luzatuko da.

### Berri Txarrak entzuteko sarrerak salgai daude

**TOLOSA** > Bonberenean zuzenean joko du Berri Txarrak taldeak, Ostiral Mehean, hau da, hilaren 17an. 19:00etan izango da kontzertua. Sarrerak dagoneko salgai jarri dituzte, eta hilaren 10a bitartean egongo dira, epe horretatik atzerako eskaerak ez dira onartuko. Bonberenean bertan edo *sarrerak@bonberenea.com* helbidean eros daitezke. 400 sarrera baino ez dira izango.

### Pregoi kontzertuan parte hartzeko entseguak

**TOLOSA** > Inauterietako pregoi kontzertua hilaren 12an, igandean, izango da. Entseguak musika eskolako lokalean gaur eta ostegunean egingo dituzte, 20:30etik aurrera.



Agoitz herria bisitatuko dute; izena emateko azken eguna, osteguna. HITZA

## Azparren, Zarikieta eta Agoitz bisitatzeko aukera

Amasa-Villabonako Aizkardi mendi taldekoek igandean egingo duten irteerarako izena eman daiteke

**Eneritz Maiz** Amasa-Villabona

Hilaren 12an, igandean, Aizkardi mendi elkartekoek otsaileko lehen irteera egingo dute. Azparren-Zarikieta-Agoitz mendi ibilaldia burutuko dute, Nafarroako lurretan.

Azparrendik (800 metro) abiatuko dira, eta Mendigaiñara igoko dira (1.110metro). Zarikieta ze-

harkatuko dute (1.051 metro) eta ondoren, Agoitzera jaitsiko dira (510 metro). Ibilaldian zehar, mendizaleek Itoizko urtegia eskuinetara utziko dute, eta Salazar bailara ezkerrean izango dute. 26 kilometroko ibilaldia prestatu dute, eta gutxi gorabehera sei ordu eta erdi beharko dituztela aurreikusitako dute.

Izena emateko, 649 717 182 telefono zenbakira deitu daiteke edo Aizkardiaren egoitzan 20:00etatik 22:00etara eman daiteke. Hilaren 9a, osteguna, da horretarako azken eguna. Irteera goizeko 07:00etan izango da Olaederra kiroldegitik.

● [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

## Irudia > Villabona / Zizurkil



## LUBERRIRA BISITAN

Villabona-Zizurkilgo Jesusen Bihotza Ikastolako 1. mailako ikasleak Luberrira joan ziren, hau da, Oartzungo Ikasgune Geologikora. Bertan, denboraren makinan bidaiatu zuten ikasle eta irakasleek. Euskal Herriko Geologiaren historia ezagutu ahal izan zuten. Euskal Herriko nahiz beste jatorri batzuetako arroak, mineralak eta fosilak ikusi zituzten. Gainera, garai hartan bizi izan ziren animaliak ezagutzeko aukera ere izan zuten. HITZA

**Irudia** ◊ Tolosa**TEE-RI EMAN DIOTE SARIA**

Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE) EHU-Donostiako Orfeoia saria jaso zuen, Donostian ostiral arratsaldian. Tolosako Nazioarteko Abesbatza Lehiaketa antolatzeagatik nabarmendu nahi izan dute. Saria Ana Arretxe TEE-ko lehendakariak jaso zuen (argazkian, erdian), Cristina Uriarte EHUko Gipuzkoako Campuseko errektoreordearen eta Jose Maria Etxarri Donostiako Orfeoia lehendakariaren eskutik. HITZA

**Zezen plazako palkoen zozketan izena emateko aukera, irekita**

Tolosako inauterietako zezen festetarako da; zozketa datorren ostiralean egingo da, 19:00etan, Zerkausian

**I. Garcia** Tolosa

Irekita dago aurtengo Tolosako inauterietako zezen festetako palkoen zozketan izena emateko epea. Hala nahi duenak ostegunera arteko epea du horretarako. Kultur etxean egin behar da, 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Ostiralean, Kalde-eroren bezperan, egingo da zozketa 19:00etan Zerkausian.

Zezen plazan hogeita sei palko daude eta bakoitzak hamabi eserleku ditu. Zozketan izena eman ahal izateko, palkoan egongo diren lagun guztien izen-abizenak eta NAN zenbakia eman behar dira. Zozketan talde bakoitzari zenbaki bat egokituko zaio eta zenbaki horren baitakoa izango da erosi nahi dituen palkoak eskuratzeko izango duen lehenta-

suna. 1 zenbakia duen taldea lehena izango da palkoak eskuratzeko eta azken zenbakia duenak, berriz, geratzen direnak erosi beharko ditu. Talde bakoitzak egun bakoitzeko palko bat erosi ahal izango du. Palkoak zozketa leku bertan erosi behar dira; beraz, taldeek bertan erabaki beharko dute nahi dituzten palkoak.

Prezioei dagokienez, bakoitzak 30 euro balioko du aurtun eta zatietan izango dira, ezingo dira eserlekuak banakako sarre-ramoduan erosi. Esan bezala, palkoak zozketa egunean bertan erosi beharko dira eta esku-dirutan ordaindu. Zozketarako arduradun modura izena eman duen taldekideak egin beharko du erosketan eta NAN eskura izan beharko du horretarako.

**Programa, aste honetan**

Aste honetan banatuko du udal inauterietako programa etxeko. Programarekin batera, zezen plazako eta karroza eta konpartsen gaiaren gaineko neurriak azaltzen dituen eskuirua ere banatuko du.

**Patziku Perurenak jasoko du I. Larramendi Ikerketa Saria**

**R. Calvo** Leitza

Leitzan bizi den Patziku Perurena idazle goizuetarrak irabazi du Manuel Larramendi Kultur Bazkunak antolatutako Ikerketa Saria. Lehen aldiz antolatuta dute lehiaketa, eta Perurenak 6.000 euro jasoko ditu horrela ikerketa egitasmoa burutzeko. Goizuetarrak *Unaia galdu eta Artzaia ugalduta (1780-1810)* izeneko egitasmoarengatik eskuratu du saria. Proposatutako ikerkizunaren jatorriaren inguruko, bere baitako erronkagatik, agiriaren iturri historiografikoak aberastuko dituen ereduak landa-lana izateagatik eta, azkenik, egileak gisako lanetan duen eskarmentu handiagatik saritu dute.

Izan ere, Perurenak, besteak beste, Nafarroako Baztan aldeko eta Gipuzkoako Beterriko udaltako agiriak aztertuz honako tesia frogatu nahi du: aipatutako eskualdeetan eta haien arteko harreman-gune zen Leitzalarrean nagusi zela, Erdi Aroaz geroztik eta XVIII menderaino, behi-taldekiko unaien abeltzaintza jardueraren eta horien sarobeetarako joan-etorriaren, eta ez euskal gizarte-ko iruditerian hain erroturiko artzaintzaren irudia.

**Gutuna****Pedro Tolosari eskertza**

Orain dela egun batzuk Pedro Tolosak, Tolosako dendari elkarteburu izatea utzi dio. Honek hitz hauen bitartez, berak egindako lanaren onespenean eta esker ona azaldu nahi ditugu. Egia da elkartean jende askok egin dugula lan, batzuk gehiago beste batzuk gutxiago; baina inork ez du berak bezain beste

denbora, interesa eta ilusioa eskaini bai elkarteari eta baita elkarteko kideei gure betebeharrak lantzeko. Cardiferra lanegunak irakasten.

Pedro, bere lanerako gaitasun, antolaketa eta aginte ahalmenarekin Tolosa&co-ren sortzeraren bultzatzaile izan da.

Eskerrik asko, Pedro.  
■ **Tolosa&Co-ko kideak.**

**Cardiffera bisita egingo dute Tolosako ordezkariak**

Comenius Regio Europako proiektuaren barruan joango dira Galesera udaleko zein eskoletako kideak

Gaur bertan proiektuaren partaide diren eskoletako ordezkariak Cardiffen bilera egingo dute orain arte egin diren urratsak ebaluatzeko eta hurrengo pausak lantzeko. Cardiferra Orixe Institutuko, Laskorain ikastolako eta Lasarteko Berritzeguneko hiru irakasle eta Tolosako Hizkuntza Politika eta Hezkuntza batzordeburu Inaki Irazabalbeitia zinegotzia joango dira. Bertan, lan bilerak egiteaz gainera, hainbat eskola bisitatuko dituzte bai galesaren bidezko irakaskuntza baita atzerriko hizkuntzen irakaskuntza ere nola lantzen dituzten ikusteko.

Otsailaren bukaeran Cardifeko ordezkariak izango dira Tolosan bisitari.

**I. Garcia** Tolosa

Tolosako Udala Cardifeko Udalarekin (Gales) elkarlanean burutzen ari den Comenius Regio Europako proiektuak urrats berria egingo du aste honetan. Eskoletako ikasleen eta horien gurasoen artean eleaniztasunari buruzko jarrera positiboak eragiteko metodologiak garatzea eta praktika onak abian jartzea da proiektuaren helburua.

 <b>TOLOSALDEA</b> GOIMAILAKO L. II. INSTITUTUA			
<b>LANERAKO PRESTAKUNTZA</b> (Langile eta langabeteentzat)			
<b>KATALOGO MODULARRA (PROFESIONALTASUN KUALIFIKAZIEN SISTEMA)</b>			
IKASTAROAK	ORDUAK	HASIERA	ORDUTEGIA
Aplikazio informatikoak tratatzeko (Word)	30	2012-02-27	Asteleheneetik ostegunera 18:00etatik 21:00etara
Fluordun hoztailen manipulazioak osagarria	24	2012-02-27	
CAD 2D (Autocad hastapenak)	40	2012-02-27	
FAGOR CNC fresatzeko makinaren prestaketa eta programazioa	70	2012-02-27	
Automatismo elektro-neumatiko-hidraulikoak fabrikazio mekanikoko produktuetan	90	2012-03-05	
Datu baseen lanketa (ACCES)	50	2012-03-19	
Irati-telebista seinaleen jasoze eta banatze instalazioen muntaketa	60	2012-03-19	
Klimatizazio eta aireztapen instalazioen muntaketa (UBS, berokuntza, zoru radiantea, aire egokitua energia berri-eraginekin aplikazioa)	80	2012-03-19	
Kalitatearen kudeaketa	20	2012-03-19	
Aplikazio informatikoak aurkezpenak egiteko. (Powerpoint)	30	2012-04-18	
TIG soldaketa	40	2012-04-18	
Beste soldadura prozesuak- ABB robotaz soldaketa	35	2012-04-18	
Kalitate erremintak	24	2012-04-18	

**ESKAITZA ETA ESKAERAK** [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

Matrikula eta informazioa: Tel.: 943 65 11 47  
Santa Luzia, 17 - 20400 TOLOSA  
E-mail: [idezkaritza@tolosaldea.com](mailto:idezkaritza@tolosaldea.com) Web: [www.tolosaldea.com](http://www.tolosaldea.com)

**Alegia-Ibarra**



**HOTZIK EZ, SANTA ESKEAN ARITZEKO**

Hotza eta elurra ez zen traba izan eskualdeko herritar askorentzat lanunbatean santa eskean irteko. Ibarra (beheko irudietan), egun osoan aritu ziren Agate Deunari koplak kantatuz. 20 lagunek osatutako taldea ospelako baserrietan aritu zen goizean, eta Xela elkartean bazkido ondoren, eguteraiko baserrietatik igaro ziren.

Baserrietako jabeek jan eta edan bikainekin adierazi zieten esker ona. Alegian (golan), Txintxarri abesbatza eta Zazpi Astoren Gai-nean bertso eskolako kideak aritu ziren arratsaldean, kalek kale kantari. Umurez beteriko koplak entzun ahal izan ziren, eta eskualdeko irribarrietan, Txintxarri elkartean afaldu zuten. [Lizartza irribarrietan](#)

**Lizartza**



**Tolosan etxe adosatuak salgai:** eguzkitasun, lau gelak, bi bainugela, komunak, egongela-argategi handia, sukaldaria, bi autoerentzako garajea, hokoa, gordinak eta fitoeliskua.

**Interesak, deitu 078 267657 telefono zerbaita.**

**HASI DIRA LIZARTZAN**

Ekin diete inauteriei Lizartzan. Txekor baten apustuaren harira sortutako gertakizuna irudituz antzerkia egin ohi dute lizartzarrek inauterien lehen egunean, eta horrela egin zuten lanunbatean. Halaber, Otsoak herriko dantza taldearen saila ikusteko aukera ere izan zen. Festak ostiralean jarraituko du, eskualde antolatutako mozorrio festarekin, Igandera arte jai giroa izango da nagusi Lizartzan. [Lizartzan](#)

**TOLOSAKO EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA**

**SARTUNE**  
 - Baserriak  
 - Oso onak (Plaza Berria)  
 - Hain onak (Larrea Herrikoak)  
 - Gai onak (San Mateo)

**ORIXE TOLOSAN**  
 - Deriaren 8. Bilgunea  
 - Deriaren 8. Bilgunea  
 - Deriaren 8. Bilgunea

**Mundo Zabeleko Zuzen**  
 - Deriaren 8. Bilgunea  
 - Deriaren 8. Bilgunea  
 - Deriaren 8. Bilgunea

**Euskaratik eta Euskaraz**  
 Martikula onak: urtarrilaren 30etik otsailaren 10era

**Ibarra**  
**KIROLDEGIA TXIKI GERATU DA**

Subegi kultur elkarte eta Eneko Arizaren Lagunak kultur taldearen eskutik, Pirritx, Porrotx eta Mairmotxan Zazpikolona ikuskizun berria izan zen ikusgai ostrialean Ibarako Belabietan kiroldegian. Gaiztoak ugarri izan ziren emantaldia ikustera, euren gurasoek lagundurik, eta kiroldegia bete egin zuten. Antolatzaileek eskerrik eman nahi izan didie, «bal laguntzen aritu ziren 25 boluntario ingururi, bai eta kiroldegira joan ziren herritar guztiei ere». [Lizartzan](#)



**Tolosa**



**GIRO POLITA SAN BLAS AUZOAN**

Asteburua bete izan dute Tolosako San Blas auzoan. Lanunbatean haurrentzako jokoak eta helduentzat toka izan zuten, eta igandera, bertik, egitarau oparoa antolatu zuten. Amaroako dantzarien saila izan zen ikusgai, aisakolaren proba eta bertso saila. Elustondo anal-arreben donuek eman diete amaiera aurtengo jaiak. [Lizartzan](#)

Asteburua bete izan dute Tolosako San Blas auzoan. Lanunbatean haurrentzako jokoak eta helduentzat toka izan zuten, eta igandera, bertik, egitarau oparoa antolatu zuten. Amaroako dantzarien saila izan zen ikusgai, aisakolaren proba eta bertso saila. Elustondo anal-arreben donuek eman diete amaiera aurtengo jaiak. [Lizartzan](#)

**Tolosa**



**LANDARE FESTA**

Zuhaitz Eguneko azoka berezia izan zen lanunbatean Triangulo plazan. Euskal Herri osoko 16 mintegik hartu zuten parte, era guztietako zuhaitz, zuhaixka, bonsai eta landareak eskalari. Bestalde, udalako ingurumen sailak ingurumen eskolarekin batera sentsibilizazio ekintzak antolatu zuten lanunbatekoak, balira, eguraldiagatik, atzeratu egin dituzte. [Lizartzan](#)

**European aurrezten.**

Kutxabank aurrerazki ideiak.

Kutxabank gure Auzokari Gata.

## Kirolak &gt;

## ↓ Kirol emaitzak

## PILOTA

LEHEN MAILAKO BINA KAKO  
TXAPELKETA

Bengoetxea VI-Apraiz	12
Xala-Laskorain	22
Mtz de Irujo-Barriola	22
Xala-Laskorain	13

## Hurrengo partidak

Mrtnez de Irujo-Barriola
Titin III- Merino II
Bengoetxea VI-Apraiz
Arretxe II-Begino

## SAILKAPENA

1. Olaizola II-Beroiz	7-0
2. Mtz de Irujo-Barriola	5-2
3. Berasaluze-Albisu	4-3
5. Bengoetxea VI-Apraiz	3-4

## IX. BERRIA TXAPELKETA

Bidegoian-Lizarrak	3-0
--------------------	-----

Chiapuso-Aburuza	22
Aramendia-Lander	6
Labaka-Iruretagoiena	22
Gofi-Garaio	5
Urbietia II-Arratibel	22
Zufiaurre-Nubla	13

## FUTBOLA

## ERREGIONAL OHOREZKOA

20. jardunaldia	
Tolosa CF-Elgoibar	zintzilik

## Sailkapena

1. Anaitasuna	44p
2. Tolosa	38p
3. Berio	38p

## Hurrengo jardunaldia

Behobia-Tolosa CF
-------------------

## ERREGIONAL PREFERENTEA

## 19. jardunaldia

Lehen taldea	
Touring-Tolosa B	zintzilik

## Sailkapena

1. Ostadar	43p
2. Touring	41p
3. Tolosa B	39p

## Hurrengo jardunaldia

Tolosa B-Santo Tomas Lizeoa
-----------------------------

## Bigarren taldea

Intxurre-Soraluze	1-3
-------------------	-----

## Sailkapena

1. Lagun Onak	36p
2. Antzuola	33p
3. Getariako KETA	33p
16. Intxurre	12p

## Hurrengo jardunaldia

Ilintxa-Intxurre
------------------

## ARARETO FUTBOLA

## BIGARREN B MAILA

## 15. jardunaldia

Castro-Laskorain	1-1
------------------	-----

## Sailkapena

1. Ebrosala	33p.
2. Kirol Sport	27p.
3. Zalatambor	25p.
12. Laskorain Ikastola	13p.

## Hurrengo jardunaldia

Colo-Colo-Laskorain
---------------------

## HIRUGARREN MAILA

18. jardunaldia	
Egintza-Sestao	3-3
Inter Eder-Ibarra	1-4

## Sailkapena

1. Ibarra	45p.
2. Sestao	40p.
3. Aurrera Vitoria	36p.
11. Egintza Transportes Lakuntza	22p

## Hurrengo jardunaldia

Ibarra-Buruntza
San Jorge-Egintza

## EUSKAL LIGA

18. jardunaldia	
Tolargi-Hirukide	6-3
Eskolapioak-Sasikoa	14-2

## Sailkapena

1. Tolargi	40p.
2. Goierri	39p.
3. Tolosala Hirukide	36p.
7. Eskolapioak	24p.

## Hurrengo jardunaldia

Hirukide-Kukuiaga
Lagun Onak-Eskolapioak
Iso Leihoak-Tolargi

## SOKATIRA

Euskal Herriko Zortziko  
Goma Gaineko Txapelketa

## 640 kilotan (gizonezkoak)

Finala
1. Ibarra
2. Abadiño A
3. Sokarri
4. Abadiño B
5. Basaburua-Imotz
6. Amaiur

## 500 kilotan lehen jardunaldia

## (emakumezkoak)

1. Badaiotz
2. Sakana
3. Ibarra
4. Berriozar
6. Bizindar

## Hurrengo jardunaldia

Otsailaren 11n, Berriozarren, 600 kiloko finala jokatu dute gizonezkoek. Emakumezkoak, aldiz, 500 kiloko bigarren jardunaldian lehiatu dira. Sokatira jaialdia 17:00etan hasiko da.
---

## BELA

## VOLVO OCEAN RACE

## Hirugarren etapa

1. Telefonica (X. Fernandez)
12 egun 19 ordu 58 minutu eta 21 segundo.
2. Groupama Sailing Team
12 egun 21 ordu 45 minutu eta 24 segundo.
3. Camper with Emirates Team New Zealand
12 egun 23 ordu 28 minutu eta 23 segundo.
Laugarren etapa
Otsailaren 18an hasiko da.

## Xabi Fernandez en ontziak hirugarren etapa lehen postuan amaitu du

‘Telefonica’ ontziak sailkapen nagusiaren lehen postuan jarraitzen du; bigarren taldea 15 puntura dago

## Erredakzioa Ibarra

Volvo Ocean Race lasterketaren hirugarren etapa Txinan amaitu zen iragan larunbatean. Xabi Fernandez ibartarraren ontziak, *Telefonica*, lehen postua lortu zuen 12 eguneko ibilaldiaren ostean. Etapa oso parekatua izan zen, izan ere, bigarren iritsi zen *Groupama* ontzia bi ordu baino gutxiagora helmugaratu zen.

Xabi Fernandezek *trimmer* lanak egiten ditu Telefonican, eta Txinan oina jarri orduko bere poztasuna azaldu zuen: «Oso zaila izan da etapa. Arazo batzuekin hasi ginen, baina zorionez, egoera horri buelta eman eta Malacako itsasertzera lehen postuan iristea lortu genuen. Aurrena iritsi eta aurrea irten ginen bertatik, eta hori oso zaila da. Nire ustez gakoa hor egon da. Malacatik lehen irte denak, abantaila handia du, nahiz eta ez den erraza izan. Eguraldi aurreikuspenek ez zuten asmatzen, eta egokitzen ibili behar



‘Telefonica’ ontziak Txinan lortutako garaipena ospatzen. HITZA

izan dugu une orotan. Uste baino paper handiagoa egitea tokatu zaigu».

Txinako helmugan lorturiko garaipenarekin sailkapen nagusiaren buruan jarraitzen du *Telefonica* ontziak, sendotasunez. Hiru etapa jokatu ostean, Xabi Fernandez taldeak 95 puntu lortu ditu. Bigarren postuan, *Camper with Emirates Team New Zealand* ontzia dago. Txinan hirugarren izan dira Zeelanda Berriko kideak, eta *Telefonica*ekin 15 puntuko galera darama orain.

Hirugarren postuan Txinan bi-

garren gelditu den *Groupama* ontzia doa. Frantziarrak azkenaldian indartsu dabilta, eta bigarren postua gero eta gertuago dute. Hala eta guztiz ere, lidertza 24 puntura aurkitzen da *Groupama* ontziarentzat.

Volvo Ocean Race lasterketaren laugarren etapa otsailaren 18an, larunbatean, hasiko da. Orain, itsas gizonek bi asteko atsedendia hartzeko aukera edukiko dute Sanyan (Txina). Ondoren, bertatik abiatuko dira Zeelanda Berriko Aucklandeko helmugara.

## Bidegoian Berria Txapelketaren final laurdenetarako sailkatu da

Aurrera Saiazeko pilotariek 3-0 irabazi die Lizarrakoei; Huarte edo Zaramaga izango da hurrengo aurkaria

## Erredakzioa Bidegoian

Bidegoiango pilotariek garaipen erraza lortu zuten iragan ostiralean Lizarraren aurka, IX. Berria Txapelketako kanporaketan. Final laurdenetara sailkatu diren lehenak izan dira Aurrera Saiazekoak, eta hurrengo aurkaria, Huarte eta Zaramagaren arteko lehiatik irtegarria.

Kanporaketa Asteasun jokatu zen, eta eguraldia aurka izan arren, jende ugari elkartu zen frontoian. Kadeteetan Chiapuso-Aburuzak erraz lortu zuten garaipena, aurkariak 6 tantotan utzi. Jubeniletan ere ezinean ibili zi-



IX. Berria Txapelketan Bidegoiango taldea. HITZA

ren lizartarrak, eta 5 tanto egitea besterik ez zuten lortu. Nagusien partida jokatu aurretik, beraz, dena erabakirik zegoen. Lehen bi partidak galtzen dituenak, nagusietan irabaziz gero, aurrera egiteko aukera izaten du tantoak gehituta. Kasu honetan, ordea, li-

zartarrek 22-0 irabazi izan balute ere, Bidegoiangoek tanto gehiago lortuko zituzten lehen bi partidak kontuan hartuta. Hala eta guztiz ere, zenbaketa beharrik ez zen izan partida amaieran, Urbietia II.ak eta Arratibelek 22-13 irabazi baitzuten azken partida.



Ibarra eta Abadiño A-ren arteko kitarako lehia 'www.ibarraldea.hitza.info' webgunean dago oso osorik. HITZA

## Epaileak ere ezin izan dio kendu oraingoan Euskal Herriko txapela Ibarrari

Abadiño A taldearen aurka jokatu du kitarako Ibarra zortzikoak, goma gainean, 640 kilotan

Asier Imaz Ibarra

Ibarra Euskal Herriko Sokatira Txapelketa irabazi zuen larunbatean Durangon, Abadiñotik gertu, eta kitarakoan. Goma gaineko 8x8ko 640 kiloko finala, benetan ikusgarria, tentsio handikoa izan zen. Azkenean, ordea, aurkari guztiek amore eman behar izan zuten bai Ibarraren eta baita ikusleentzako aurrean ere. Bi jardunaldiren ondoren, sei talde sailkatu ziren finalerako, eta guztiak Durangoko pilotalekuan elkartu ziren 640 kiloko txapeliduna nor izango zen erabakitzeko. Giro epela izan zen finalean zehar, baina azken tiraldietan, dena aldatu zen.

Finaleko ligaxka jokatu ondoren, bi talde berdindurik gelditu ziren: Abadiño A eta Ibarra. Araudiaren arabera, txapela bizkaitarren eta gipuzkoarren artean jokatu behar zen, kitarakoan; bi tiraldi irabazten zituenak, txapela etxera eramaten zuen.

Lehen tiraldia Ibarra irabazi zuen, soka bere aldera garbi eramanez. Atsedean baten ondoren, lekuz aldatu eta bigarrenari ekin zioten. Ibarra indartsu hasi zen, eta soka bere etxetik gertu zuen, ondorioz, baita txapela ere. Abadiño A nekaturik ikusten zen, eta horren ondorioz, tiratzaileak lurrera erori ziren, eskuak jarriaz. Ibartarrak ez zeuden askoz freskoago, eta hauek ere lurra ukitu beharrean izan ziren. Epaileak bi eskuak altxa zituen, falta bana markatzeko. Bi taldeak altxa orduko, berriro lurrera erori ziren, eta epaileak bigarren falta adierazi zuen bientzat. Ibarrari ez zitzaion asko falta tiraldia irabazteko, soka bere aldean zuelako. Gertutasun hori epaileak hautsi zuen txilibituarekin, Ibarrari hirugarren falta markatu zionean. Ikusleentzako txistua eta tiraldi bana.

Hurrengo tiraldia irabazten zuenak, txapela lortzen zuen. Baina oraingo honetan ere, epailea tartean sartu zen. Atsedendaldi berri baten ondoren, bi taldeak leherturik, hirugarren tiraldiari ekin zioten. Leku berean aurreko hasiera bera izan zuen lehiak. Tenka! Eta soka ibartarren aldean. Abadiño A ezinean zebilen, argi eta garbi, eta sokak lehen kol-

peetan norabide argia zuen. Aurreko tiraldiaren bide beretik zihoan dena; nekeak bi taldeak lurraren gainean eserarazi zituen behin eta berriz, eta epailea berriro eskuak goran zituela jarri zen: Falta bana, bina falta eta... Nuloa! Tiraldia bertan behera utzi zuen oraingoan epaileak, aurrekoan ez bezala.

Soka erabat Ibarraren aldean zegoen, baina ezin azken bultzadaman.

Laugarren tiraldiaren txanda iritsi zenean, ikusleek bazuten bere faboritua eta bere etsaia: lehena Ibarra, eta bigarrena epailea. Aurreko tiraldien moduan hasi zen lehia, eta soka ibartarren aldean joan zen. Ondoren, bi taldeak lurrera, baina ikusleentzako oihuak gero eta ozenagoak ziren Ibarraren alde, Durango Abadiñotik gertu egon arren. Zerbait ikusi zuten seinale! Epaileak berriro bi taldeak bi faltekin kargatu zituen, eta hirugarrena nora eroriko zen ikustea besterik ez zen gelditzen. Kasu honetan ordea, sokak bere legea ezarri zuen, eta txapela Ibarrara joan zen.

Iaz, 600 kilotan, modu berean galdu zuen txapela Ibarra. Aurten, ordea, epaileak ere ezin izan dio kendu.

## Laskorain Ikastolak berdinketa lortu du Castroren aurka

Partida 1-1 amaitu da eta bi golak azken minutuan iritsi dira; tolosarren goleatzailea Telleria izan da

Gorka Amatriain Tolosa

Berebiziko garrantzia zuen neurketa jokatzeko egokitu zitzaion Laskorain Ikastolari joan den larunbatean, iraganean une gozagoak bizi izan dituen Castro Urdiales historikoaren gotorlekura eginiko bisitan.

Duela urte batzuk, zilarrezko mailako txapeliduna eta errege izandako CFS Castro Urdiales errepika ezina, oso bestelako uneak bizitzen ari da gaur egun. Gazte jendeaz osaturiko egitura oinarri duela, 2. B mailan bizirik irauteko borrokan dabil Kantabriako taldea sailkapeneko azken postuetan.

Egoera berdinean dagoen Laskorain batek, gauzak beste angelu batetik aztertzen dituen arren, tentsio altuko neurketa planteatu zuen Castroko Peru Zaballa polikiroldegian. Azken emaitzak erakusten duen banako berdinketak, ordea, bi taldeei mezu argia uzten die: azken helburua lortzeko oraindik lan asko egin behar da.

**Azken minutu erabakigarria**

Lehen zatia irabazteko osoz ekin zioten tolosarrek. Taktikoki kikapen serioa eskaini zuten, areioaren azterketa sakon bat eginez, eta kontraeraso urriek bermaturiko aukerei ahal zen heinean etekina ateratzeko asmoan oinarrituz.

Aparteko berririk gabe, 0-0eko berdinketarekin joan ziren aldegetara bi taldeetako jokalarri saiatuak.

Bigarren erdian egoerak itzuli-purdi bat eman zuen, eta etxekoek norgehiagokaren zama eramateko erabakia hartu zuten. Honen ondorioz, Endikaren atea estu hartzea lortu zuten minutu luzeetan zehar.

Ikastolako akatsengatik baztutan, eta kantabriarren meritu zela bestetan, etxekoek sareztatzea gertu sumatu zen behin eta berriz, baina partidako azken unera arte atzeratu zen filmaren korapiloa. Jokaldi isolatu batean horitxoan aldeko penalti bat adierazi zuten epaileak, eta Telleria zilarrezko beltzargak 0-1eko ipini zuten neurketa amaitzeko minutu baten faltan.

Etxekoek bururik makurtu gabe, atezain jokalariren taktika martxan ipini zuten berehala. Erabaki honek bere fruitua gol moduan ekarri zuen, eta tolosarren atea zulatatu ostean 1-1eko adostasun erabakigarria ezarri zuten markagailuan.

**Hurrengo jardunaldia sailkapeneko azkenaren etxean jokatu dute horiek**

Lan ugari egin beharra dago oraindik, eta datorren astean Colo-Colo azken sailkatuaren etxera bisitatuko dute Javiren mutilek, garrantzi handiko beste talde berri batean. Ezpata eta aukera guztiak zutik daude oraindik, eta abagune ona izan daiteke azken asteetako dinamika apurtzeko.

Larunbatean, Castron, Javi delegatua, Javi entrenatzailea, Alonso *Coach manager*-a, Endika, Mikel Alonso, Telleria, Gil, Murgi, Lander, Belloso, Diez, Joniko eta Aratz izan ziren elastikoa horiaren izen ona defendatu zutenak.

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak S.M.  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza.** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info.  
**Webgunea:** tolosaldean.hitza.info

**Zuzendariordea:** Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu.  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info.  
**Ibarraldea:** 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info.  
**Leitzaldea:** 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak  
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko  
eta Leitzaldeko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:**

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeako, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

## Agurrak



### Urte askoan!

**Pello Zelarain (Amasa-Villabona).**

Besarkada bero eta iraultzaileenak!

Euskal preso eta iheslariak etxera! Maite zaituztegu!



### Zorionak!

**Sugaar Zapirain Larrañaga.** Polita bezain alaia eta argia, gure txiki handiak atzo bi urte. Zorionak maitia eta urte askotarako, ondo ospatu zure aitatzu Iñigo, amatxo Agurtzane, eta lagun guztiekin, amona Maria Pilar eta osaba losuren partetik.

## AGURRAK

943-65 56 95 [tolosaldean@hitza.info](mailto:tolosaldean@hitza.info)

urtebetetzeak  
urrezko ezteiak  
ezkontzak  
jaioberriak  
jaunartzeak...

●●●● agurrak

## Farmaziak

### GAUR

- **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1. Telefonoa: 943 67 36 49.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

## Agenda

### DEIALDIAK

- **Tolosa.** Euskal Herria Sozialistak hitzaldia eskainiko du gaur, Otsabi gazte lokalean 19:00etan.
- **Irura.** Larunbateko kaldero-etarako entsegua antolatuta du Loatzo musika eskolak gaurko, 18:00etan elkartuko dira musika eskolan bertan, eta bertarazten direnei zartagina eta mailua eramateko eskatu diete.
- **Tolosa.** Amartz auzo elkar-teko kideek gaur irekiko dute merkatu txikia. Igandea bitarte egongo da zabalik Tolosako kultur etxeko areto nagusian goizez, 10:00etatik 13:00etara, eta arratsaldez, 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Aitzol udal euskaltegiak euskara ikasteko matrikula irekiko du gaur. Hilaren 15ra bitarte egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara. Matrikula euskaltegian bertan egin behar da (Gorosabel kalea 34B-3. solairuan). Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietara.

## Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €

Anoetan: Kuku-lore liburudendan.

Ibarran: Lurdes liburudendan.

Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.

Villabonan: Kazetaria liburudendan.

- **HITZAKo bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

### • Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburukak, 25 €, harpidedunek 20 €.

